

HELDUEN DANBORRADA 2026

DANBORRADA BERRIEN AURRE IZEN EMATEA

1. AURRE IZEN EMATE EPEAK

Danborrada berrien izen ematea **maiatzaren 1etik 31ra bitartean** egingo da.

2. AURRE IZEN EMATEA EGITEKO

Danborrada berria ateratzeko interesa duten Elkartek **donostiakofestak@donostia.eus** posta elektronikora mezu bat bidali beharko dute eta aurre izena emateko hesteka bidaliko zaie. **Behin betiko inskripzioa egiteko ezinbestekoa izango da Elkartearen estatutuak eranstea.**

3. AUZO BAKOITZEAN ORDUTEGI LIBREAK 2026RAKO

Zenbait auzotan, irteera-ordutegiak mugatuta daude. Danborrada berriek aurkezten dituzten proposamenek nahitaez bete beharko dituzte ordutegi libreak. Hau da, **danborradaren hasiera eta amaiera orduak ordutegi horren barruan egon behar dute.**

ALDE ZAHARRA	Ez dago ordu liberik
ERDIALDEA	Ez dago ordu liberik
GROS	05:00 – 11:00 bitartean atera daiteke baina zonaldeko arduradunak aztertu behar
AMARA	00:00 – 16:00 / 21:00 – 24:00 bitartean atera daiteke, baina zonaldeko arduradunak aztertu behar
ANTIGUO	03:30 eta 15:00 bitartean atera daiteke baina zonaldeko arduradunak aztertu behar
EGIA	00:00 eta 16:00 / 20:00 – 00:00 bitartean atera daiteke baina zonaldeko arduradunak aztertu behar
LOIOLA / MARTUTENE	Ordutegi zabala, baina zonaldeko arduradunak aztertu behar
ALTZA / INTXAURRONGO	Ordutegi zabala, baina zonaldeko arduradunak aztertu behar

Kontuan izan danborradaren hasiera eta amaiera orduak ordutegi horren barruan egon behar dutela. Hala ez bada zuen eskaera ez da onartutzat hartuko. **Eskaera guztiak Donostia/San Sebastián Festak-en aztertuko dira zonaldeko delegatuaren oniritzia jaso ondoren.**

4. ANTOLAKETA ARAUDIA

Helduen danborradan parte hartzeko araudia, Danborradaren web orrialdean kontsulta daiteke > <https://danborrada.donostiakultura.eus/eu/deskargak>